

1935-EAN KATALUNIAKO ERREPUBLIKA ALDARRIKATU ZUEN PRESIDENTEA

Kantuz eta Ozenki koruak Lluís Companys-en omenaldian

EAJ, EA, EH, ERC eta CIU izatekoak dira. Irunen, "Nazioarteko Zubian" da omenaldia, polizia alemanak Lluís Companys Francoren esku utzi zuen lekuan bertan.



Hernani eta inguruko koruek atzo egin zuten entsaioa. "Agure zahar batek zion" euskaraz eta Lluís Lachen jatorrizko bertsoan, bietara kantatuko dute.

Hernaniko abesbatzek zita berezia dute Irun eta Hendaia arteko mugan. Lluís Companysen aldeko batzordeak antolatuta, Espainiako gerra zibiletik ihesi joandako euskaldunak eta Lluís Companys, Kataluniako presidente zena omenduko dituzte. Politikoak, Hendaia, Irun eta Hondarribiko alkate-

ak, Agirre Lehendakariaren eta Companysen senitartekoak... eta 120 ahotsez osatutako koruan Ozenki eta Kantuz abesbatzakoak tartean.

IGANDEAN ENTSAIOA HAN BERTAN

Arratsaldeko lauak eta erdieta-rako, ekitaldian parte hartu behar duten guztiak zitatua-

daude *Nazioarteko zubian* entsaio orokorra egiteko.

ASTEARTEAN 22:00ETAN Omenaldiak ekitaldi bat baino gehiago izango ditu. Hernani-arrak datorren asteartean dira. Abuztuaren 30ean herri afaria izango da Hondarribin eta 31ean Lluís Llach eta Tapia eta Leturia Victoria Eugenia. □

■ PELOTA

Gaur Esnalek Laudioko torneoko finala du

Erroizeneak bihar jokatu du Antiguakoa. Oiak 4 1/2ko partidua du

Gaur Esnalek eta Odriozolak Laudioko Torneoko finala jokatu dute Telleria-Badiolaren aurka, 11:30etan. Torneoko finalerdian erraz nagusitu ziren Telletxea-Olideni, 22-5. Bihar berri San Vicente de Aranan (Errioxan) 12:00etan.

ANTIGUAKO FINALA
Erroizenea-Argote bikoteak bihar goizean jokatu du Antiguako torneoko finala. Finalerdietan dezenteko pasara ema zieten Mendizabal eta Gurrutxagari. Ordua: 10:30-etatik aurrera. □

■ ARRAUNA

Hernani Erandiora ez, baina Santanderra bai

Azken orduko aldaketak direla-eta igandean 'Ciudad de Santander'ko banderan izango dira.

ERANDIOKO estropada, B Ligatik kanpo izateko erabakia hartu zuen Lutxana talde antolatzaileak, aurretik eurak hala utzi zituztelako 3 estropadatar kale egin ondoren. Ligatik kanpo izanda, gonbidapen bidez egin dute partehartzaileen ze-

rrenda, eta ez dute Gipuzkoarrik gonbidatu.

SANTANDERTIK GONBITEA

Azken orduan deia jaso eta igandean han izango dira 17:30etatik aurrera. □

■ TXIRRINDULARITZA

Bihar Hernanitik pasako da 'Artzak Ortzeok' saria

Goizeko 09:30etan irtengo dira Intxaurrondotik

98 km tako ibilbidean 3 aldiz pasako dira herritik. Lehenengo aldian Ergobitik sartuko dira 09:45tan; bigarrenengoan Galarretatik Urnieta bide-

an 11:15ak inguruan eta azkenik, 11:40 etan-edo, Intxaurrondoruntz Zinko Eneatik barrena pasako dira Errekaldetik etorrita. □

"ZEUN PRESIDENTEA HIL DUZUE"

Lluís Companysen historial haundiko bizitza du. Gaztetan CNTko langileak defendatzen hasi zen lanean. Aurrerago ERC alderdiaren sortzaileetako izan zen. 1933an Generalitateko Presidente izendatu zuten eta bi urte beranduago Kataluniako errepublika independentea aldarrikatu. Euskaldunekin harreman onak zituen. Gerra etorri zenean, euskaldun asko Frantziara ihes egin eta handik Kataluniara jo zuten babes bila: denera 125 mila errefuxiatu euskaldun inguru hartu omen zituen Katalunian. Agirreren gobernu ere Katalunian egon zen bolada batez. Companys Espainiara entregatu eta heriotz zigorrera kondenatu zuten. Katalanez osatutako pelotoi batek fusilatu omen zuen Companys. Agindua eman zuenak "zeun presidentean hil duzue" esan omen zien gero.

INTXASPE
ARRANDEGIA
Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

LARRE-GAIN
Tolare-Sagardotegia
Sagardo naturala
URTE OSOAN BOTILAN SALGAI
Tel. 943 55 58 46
LARRE-GAIN BASERRIA . EREÑOTZU - HERNANI

DATORREN ASTEKO GOBERNU BATZORDEAK PROIEKTUA ONARTZEN BADU

Babes ofizialeko 96 etxebizitza egingo dira Antziolan

Herritarrek ez dute inongo lehentasunik izango. Eskaerak Eusko Jaurlaritzan egin beharko dira eta zeini eman ere berak erabakiko du.



Antziolako babes ofizialeko etxeak.

OSTEGUNEKO Hirigintza batzordean baiezkoa eman zitzaion Antziola auzoan etxebizitzak, lokal komertzialak eta garajeak egiteko proiektuari. Denera, 48 etxebizitzako bi bloke izango dira. 96 horietatik, gehienak hiru logelako pisuak izango dira. Beste batzuk laukoak eta apartamentuak ere sartzen dira proiektuan.

BI URTE BARRURAKO Azken ordukorik ez bada, datorren asteko gobernu batzordean proiektua onartu eta 6 hilabeteko epea du VISESA enpresak obrak hasteko. Hastean, berriz, bi urte barrurako lanak bukatuta beharko dute. Joxe Leon udal arkitektoak, ordea, "lehenago ere egingo dituztela" esan dio Kronikari.

HERRITARRAK % 15-16 Lehenago ere, Antziolan *babes ofizialeko* 238 etxe eginak badituzte, baina, orduan ere oraingo gauza bera: etxe asko, baina, bertakoentzat ehuneko hamabost bat.

Batzuk egiten hasi eta besteak bukatu. Antziolako obratik esan ditutenez, Gabonetrako pronto izango dira. □

Txantxangorriko XVII. Sagardo Lehiaketa martxan da

Irailak 14an izango da inguruko hamabost sagardogileren artean .

ELKARTEKO lorategian izango da lehiaketa arratsaldeko 20,00etan hasita.

IZEN EMATEA

154 pertsonentzat izango da afaria, eta lehentasuna bazkideek izango dute. Hauentzat izen emateko epea zabalik dago, eta Irailak 5 arte izango dute aukera. Gainontze-koek egun horretatik aurrera izen eman beharko dute lekuak bete arte. □



HITZ BITAN



Hernaniko bersolariak. Goian ezkerretik: Iker Osa eta Jon Iraola. Erdian Ixiar eta Extitxu Eizagirre bixkiak. Azpian Josu Oartzabal. Itxura hobean aritzen ez bazarete...!

✓ BERTSOLARITZA

Hernaniko 5 bertsolari gaztek hartuko dute parte Zarautzko n Lizardi Sarian. Ixiar Eizagirre, Iker Osa, Ion Iraola eta Iosu Oartzabalek (ia hernaniartutako Oreretarra) atzo gaueko kanporaketan kantatu zuten afalostean. Estitxu Eizagirrek, berriz, gaur gauean erakutsi beharko du bere trebezia.

✓ PRESOAK

*Senideak*ek deituta enkartelada egin zen atzo. Hasi Gudarien Enparantzan eta Zinkoeneatik barrena egin dute buelta. Ehunen bat lagunek eskatu dute, ixiltasunean, euskal presoek eskubideak errespetatu daitezela. □



Presoen aldeko enkartelada Atsegindegira iristen.

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Irigoien
Elkano, 2
☎ 943 552087
- ▶ Gaeuz: Irigoien
Elkano, 2
☎ 943 552087

IRAGARKI MERKEAK

- ▶ Neska behar da, etxekolanak egiteko eta bi ume zaintzeko. Tel.: 943 55 08 66 - 606 13 41 09.